


# **ETXEKO ENPLEGUARi** **buruzko Lan-Gida**





**Barrainkua 13, 6. - 48009 BILBO**

[fundazioa@ela.eus](mailto:fundazioa@ela.eus)

[@mrafundazioa](https://twitter.com/mrafundazioa)

[www.mrafundazioa.eus](http://www.mrafundazioa.eus)

**2021eko Martxo**

# **ETXEKO ENPLEGUARI buruzko Lan-Gida**

## **AURKIBIDEA**

	<b><u>Orr.</u></b>
ZER DELA ETA, GIDA HAU? .....	4
SARRERA .....	4
1. ZEIN DIRA ETXEKO LANGILEAK? .....	5
2. ZENBAT KOBRATU BEHAR DUTE ETXEKO LANGILEEK? .....	5
3. APARTEKO ORDAINSARIAK .....	5
4. BADA SOLDATATIK KENDU DAITEKEEN ORDAINKETARIK? .....	5
5. OPORRALDIAK ETA BAIMENAK .....	6
6. KONTRATUAREN AZKENTZEARI BURUZ .....	6
7. LANGABEZIA .....	7
8. ETXEKO LANGILEEN BAJAK .....	7
9. NOMINAK .....	8
10. PAPERIK GABEKO LANGILEEK LAN-ESKUBIDEAK ERREKLAMATU AHAL IZATEA .....	9
11. PAPERIK GABEKO LANGILEEN EGOERA ERREGULARITZATZEA .....	9
12. "ETXEKO ENPLEGUARI" BURUZKO OINARRIZKO ORIENTABIDEA EMATEKO GALDERAK ETA ERANTZUNAK, ATZERRITARTASUN IKUSPEGIA AINTZAT HARTUTA .....	11
13. INTERNETEKO BALIABIDE PRAKTIKOAK .....	14
14. DOAKO ORIENTABIDEA ATZERRITARTASUN GAJETAN .....	15

## ZER DELA ETA, GIDA HAU?

Jarraian aurkezten dizuegun etxeko langileei buruzko gida-zirkular honen helburua da gure eskualdeetan eta lokaletan ELAren iragazki juridiko lana betetzen duten pertsonen baliabide erabilgarri bat eskaintzea, jendeak gero eta gehiago eskatzen baitu horri buruzko informazioa, laguntza eta arreta. Ezin dugu ahaztu lan-sektore honekiko dugun zor historikoa ere, eta, beraz, erantzun egin behar diegu esparru horretako langileei.

## SARRERA

Etxeko lana eta zaintzen lana, orain arte etxeko langile esaten zaien horiek betetzen duten lana, urtez urte gero eta pertsona gehiago enplegatzen duen lan-sektorea da. Gaur egun indarrean den araubideak eragin du sektore horretan lan-esplotazioa eta prekaritatea oso nabarmenak izatea, gainerako lan-sektoreekin alderatuta.

Lan hori, sozialki eta ekonomikoki gutxi baloratua, emakumeek betetzen dute hein handi batean, batez ere emakume migratzaileek. **Haietako asko administrazio egoera irregularrean daude**, eta ez dugu ahaztu behar, asko eta asko beren etxeak utzita etorri direla, beste familia batzuen etxeak eta bizitzak zaintzera.

Legedia urria da sektore horretan (etxeko langileak **Etxeko Langileen Erregimen Be-rezian** daude, baita **GSko Araubide Orokorrean ere**), eta langile askok ez dute ez kontraturik ez dagokien soldatarik, ez dute araututako atsedenaldirik, eta, horrez gain, bestelako gehiegikeriak ere jasaten dituzte. Araubide orokorreko langileek eta administrazio-egoera erregularrean daudenek, oro har, ez dute halako gehiegikeriarik jasaten.

Egoera horren aurrean, Lanaren Nazioarteko Erakundeak (**LANE**), **189 Hitzarmena, etxeko langileei buruzkoa**, onartu zuen 2011. urtean. LANEk nazioarteko hainbat arau eta irizpide ezarri zituen dokumentu horretan, etxeko langileek betetako lana duina izan dadin, eta aitortza sozial eta ekonomikoa izan dezan.

Orain arte 11 herrialdek berretsi dute Hitzarmena, baina Espainiak ez du bat egin.

Hitzarmen hori berrestek berमतuko luke etxeko langileek gainerakoen tratua bera jasotzea, prestazioak, kalte-ordainak, informazioa eta bazterketaren aurkako babesa eskuratu ahal izatea, haien bizi-baldintza duinak ziurtatzea, lan-arloan salaketarako mekanismoak eskura izatea, etab. Berez, 189. Hitzarmenak jasotzen dituen eskubide ia guztiak onartuta daude etxeko enpleguari buruzko Espainiako legeetan: arazoa da legedi horiek, praktikan, letra hila direla.

Ondoren, etxeko langileek, kontratatu bat hitzartzean, kontuan izan beharko lituzketen zeinbat jakingarri azalduko dizkizuegu.

## 1. ZEIN DIRA ETXEKO LANGILEAK?

Etxeko zerbitzari esaten zaion kontzeptuaren barnean, familia-etxebizitzetan etxeko lantzat hartzen diren zereginak daude. (Ez dira zehazten zein diren).

Dena den, hor sartzen dira bestelako lan batzuk ere: familia-unitateko kideen zaintzarekin loturikoak, haurrak zaintzea, lorezaintza, familiako kideak hara edo hona eramatea, ibilgailuak gidatzea eta abar.

## 2. ZENBAT KOBRATU BEHAR DUTE ETXEKO LANGILEEK?

Etxeko langileek lanbide arteko gutxieneko soldatan (LAGS) finkatutakoa jaso behar dute gutxienez.

Ez da kopuru finkorik zehazten, ez baitago sektoreko hitzarmen kolektiborik, baina bermaturik dago gutxieneko muga hori.

Pertsona lanaldi partzialerako kontratatzen bada, eginiko lanaldiaren baliokide proportzionala izango da soldata.

Ordukako kontratu bat hitzartzen bada, LAGS arautzen duen araudi berean finkatuko da ordukako prezioa.

Ordukako kontratutzat hartuko da langileak urtebetean eginiko lanaldia 120 lanalditik beherakoa bada.

2021. urtean, orduka jaso beharreko zenbatekoa 7,42 € zen, oporraldia, aparteko ordainsariak eta abar barne hartuta.

2021. urtean, lanbide arteko gutxieneko soldata hilean 950 €-koa zen, 14 lansarirekin; hau da, lanaldi osoko kontratuarekin, urtean gutxienez 13.300 €-ko soldata gordina jaso beharko luke etxeko langileak.

## 3. APARTEKO ORDAINSARIAK

Etxeko langileek aparteko 2 ordainsari jaso behar dituzte urtean.

Ordainsari horiek ekainaren amaieran eta abenduaren amaieran jaso ahal izango dira, edo hilero hainbanatuta, modalitatea bi aldeen artean adostuta.

## 4. BADA SOLDATATIK KENDU DAITEKEEN ORDAINKETARIK?

Zenbaitetan soldataren zati bat beste era batera jaso daiteke; besteak beste, ostatuaren edo mantenuaren truke, adibidez.

Kontzeptu horiengatik soldatetik kendutakoa ez da inoiz izango lansari osoaren %30 baino gehiago (otorduengatik kendutakoa ez da inoiz soldataren %10 baino gehiago izango); izan ere, legeak, gehienez, %30eko muga ezartzen du beste era bateko edo gauzako ordain horiengatik (gosaria, bazkaria, afaria eta ostatua). Nolanahi dela ere, hori guztia aldez aurretik adostu beharko dute langileak eta enplegatzaileak. Kontzeptu bakoitzeko kopuru finko bat adostea gomendatzen da eta ez soldataren gaineko portzentaje bat.

Lanaldi osoan lan eginez gero, langileak ezin du jaso lanbide arteko gutxieneko soldata (hilekoa) baino kopuru txikiagorik dirutan. Gaur egun 950 € da gutxieneko hori. Era berean, aparte bi ordainsarien gutxieneko kopurua (950 € bakoitza) ere ezingo da murriztu soldataren gauzako kenkarien bidez.

### 5. OPORRALDIA ETA BAIMENAK

Etxeko langileei 30 egun naturaleko oporraldia dagokie. Opor-egun horiek jarraian, edo bi alditan edo gehiagotan zatikatuta har ditzakete, betiere aldi ondoz ondoko 15 egunetan hartzen badituzte.

Kontratorik adostu ezean, enplegatzaileak oporraldiko 15 egun aukeratu ahal izango ditu, eta gainerakoa langileak berak aukeratu behar ditu nahieran.

Bi aldeek bi hilabeteko aurrerapenarekin jakin beharko dituzte oporraldiaren datak.

Oporretan dagoen denboran, langileak ez du enplegatzailearen familiarekin bizitzeko edo haiekin inora joateko betebeharririk izango.

Ordaindutako baimenei dagokienez, LEren 37. artikuluan ezarritakoa bete beharko da; nolahi ere, aukera izango da beste baimen batzuk hitzartzeko.

Artikulu horretan jasotzen diren baimenen artean daude honako hauek, besteak beste:

- Hamabost egun natural, ezkontzen bada.
- Bi egun, semea edo alaba jaiotzeagatik, eta bigarren gradurainoko odol bidezko zein ezkontza bidezko ahaideen heriotzarengatik, istripu edo gaixotasun larriarengatik, ospitaleratzearengatik, edo ospitaleratzerik behar ez duen ebakuntza kirurgikoa-rengatik, etxeko atsedena behar bada. Arrazoi horietakoren bat dela medio, langileak leku batetik bestera joan behar badu, lau eguneko izango da epea.
- Egun bat, ohiko etxebizitza aldatzeko bada.
- Behar duen beste denbora, ezinbesteko betebeharr publiko eta pertsonalen bat betetzeko denean.
- Haurdunaldian zehar egin beharrekoak diren azterketak egiteko eta haurra izateko unerako prest egoteko teknikak lantzeko beharrezkoa den denbora, lanaldiaren ordutegiaren barruan egin behar direnean.

### 6. KONTRATUAREN AZKENTZEARI BURUZ

Langileen Estatutuaren 49. artikuluan jasotakoak izango dira kontratua azkentzeko arrazoiak; besteak beste, bi aldeak ados jartzea, langileak dimititzea, diziplinazko kaleratzea eta abar.

Alabaina, ezingo da kontratua azkendu EEE batengatik edo kausa objektiboengatik.

Lan-harremana azkentzen denean, enplegatzaileak dagokion kitoa eman beharko dio langileari.

1. Diziplinazko kaleratzea bada, langileari idatziz jakinarazi beharko zaio kaleratze horren arrazoiak zein izan diren, ahalik eta zehaztasun handienarekin, kaleratze horrek zer egunetatik aurrera izango dituen ondorioak adierazita.
2. Atzera egiterik badago, hori alde enplegatzailearen borondatez izango da, eta ez da adierazi beharko horren arrazoirik. Kasu horretan, idatzizko jakinarazpen bat eman beharko zaio langileari, "atzera-egite" hitza argi adierazita.

Lan-harremanak urtebete baino gehiago iraun badu, 20 egun lehenago aurre-abisu bat helarazi beharko dio enplegatzaileak langileari (ordainduak izango dira egun horiek), edo aurre-abisurik eman gabe, dagokion zenbatekoa ordaindu beharko dio.

Lan-harremanak urtebete baino gutxiago iraun badu, aurre-abisua 7 eguneko izango da.

Era berean, langileak lanaldi osoan egiten badu lan, aurre-abisuak dirauen denboran astean sei ordu izango ditu beste lan bat aurkitzeko.

Kalte-ordaina 12 eguneko izango da lan egindako urte bakoitzeko, eta gehienez ere 6 hilabeteko ordainsaria izango da, dirutan eman beharrekoa.

3. Enplegatzailearen heriotzaren ondorioz azkentzen bada kontratua, langileak hila-bete bateko lansaria jasotzeko eskubidea izango du kalte-ordain modura. Ondo bereizi behar da, zaindutako pertsonaren heriotza den edo enplegatzen duen pertsonarena den.

Kaleratzeak edo atzera-egiteak ez baditu betetzen legean jasotako baldintzak, bigabetzat jo ahal izango da, eta, kasu horretan, lan egindako urte bakoitzeko 20 eguneko kalte-ordaina jasotzeko eskubidea izango du langileak, 12 hilabeteko lansaria gehienez ere, dirutan eman beharrekoa.

## **7. LANGABEZIA**

Etxeko langilek ez dute langabeziagatik kotizatzen.

## **8. ETXEKO LANGILEEN BAJAK**

Etxeko langileek aldi baterako ezintasun egoerak (ABE) eragindako prestazioak jasotzeko eskubidea dute, gainerako langileek bezala, dela gaixotasun arruntengatik, dela laneko istripuengatik edo gaixotasun profesionalengatik.

ABE egoeran, hauxe da jaso beharreko soldata:

- *Gaixotasun arrunta*: Lehen 3 egunetan ez da ezer jasotzen. 4. egunetik 20. egunera oinarri arautzailearen %60, eta 21. egunetik aurrera, oinarri arautzailearen %75.
- *Laneko gaixotasuna edo lan-istripua*: Istripua gertatu den egunean, langileak %100 jasoko du, nahiz eta ez egun osoa lan egin, eta hurrengo egunetik aurrera, oinarri arautzailearen %75. Baza medikuaren aurreko hilabeteko kotizazio-oinarriaren araberak kalkulatu da oinarri arautzailea.

### ***Nork ordaintzen du baja?***

Gaixotasun arrun baten ondoriozko ABE bada, lehen 3 egunetan langileak ez du ezer jasoko; 4. egunetik 8. egunera, enplegatzaileak bere gain hartuko du baja; 8 egun baino gehiago irauten badu, Gizarte Segurantzari eskatu beharko dio ordainketa zuzena.

Baja kobratzeko eskubidea izateko, langileak gutxienez 180 egun izan beharko ditu kotizatuta aurreko 5 urteetan.

Laneko istripu edo gaixotasun baten ondoriozko baja bada, hurrengo egunean eskatu beharko dio ordainketa zuzena Gizarte Segurantzari. Alde enplegatzaileak Mutuaren bat badu kontratatuta, hari eskatu beharko dio dagokion ordainketa zuzena.

### ***Nork izapidetu behar du baja?***

Kontratua hilean 60 orduetik gorakoa bada, enplegatzaileari dagokio baja izapidetzea. Kontratua hilean 60 orduetik beherakoa bada, zuzenean enplegatuak izapidetu ahal izango du, aldez aurretik bi aldeak ados jarrita.

Nolanahi dela ere, baja eskaerak Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrean aurkeztu behar dira, 3 egun naturaleko epean, bajaren hasierako egunetik.

### ***Eta etxe-barneko langile bat geratzen bada ABE egoeran?***

Kasu horretan, langileak eskubidea du etxebizitzan jarraitzeko, eta enplegatzaileak ezin dio horri uko egin. Era berean, langileak beste etxebizitza batera joatea erabaki dezake, eta kasu horretan ere enplegatzaileak ezin dio ezetzik esan.

## **9. NOMINAK**

Soldatak adostutako moduan ordaindu eta jasoko dira, eskudirutan, taloi baten bidez edo bankuko transferentzia baten bidez.

Eskudirutan jasotzen bada, komeni da zenbateko horren diru-sarrera egitea “nomina” hitza adieraziz, ordainketa jaso izana egiaztatzeko. Garrantzitsua da hori etorkizunean arazorik ez sortzeko.

Garrantzitsua eta gomendagarria da, halaber, hileroko nominak eskatzea, egiaztagiri horretan zer soldata jaso den adierazita. Agindutako zenbatekoa jaso ez badu, langileak ez du nomina sinatu behar; izan ere, sinatzen badu, onartuko du ordainketa jaso duela. Kasu horretan, langileak nomina jasotzen badu eta sinatu egin behar badu, ohar bat gehitu dezake sinatu aurretik; honako hau, adibidez, “berrikusteko eta ordainketa jasotzeko zain”.

Oso garrantzitsua da nominak eskatzea, etorkizunean izan daitezkeen kalte-ordainak kalkulatzeko.

Kasu askotan, enplegatzaileak ez du nominarik ematen, “ez dakiela egiten” argudiatuta. Enplegu Ministerioaren orrialdean badira nominen eta beste agiri batzuen ereduak, bete ahal izateko.

ELAn laguntzeko gaude, eta izan ditzakezun zalantza guztiak argitzeko.



Etxeko langileena oso sektore ahula eta kaltebera da, baldintza oso prekarioetan dardelako eta legedia oso urria delako.

Hori dela eta, beharrezko informazio guztia emango dizuegu, eta dauden tresna guztiak jarriko dizkizuegu eskura, zuen baldintzak hobetzeko.

## **10. PAPERIK GABEKO LANGILEEK LAN-ESKUBIDEEN ERREKLAMATU AHAL IZATEA**

Paperik gabeko langileek beren lan-eskubideak erreklamatzeko eskubidea dute, gainerako langileen baldintza beretan. Horretarako, dagokion erreklamazioa jarri beharko dute Eusko Jaurlaritzaren Lan Saileko Adiskidetze Zerbitzuan, akordio batera iristen saiatzeko, eta, ondoren, demanda judiziala jartzeko.

Aipatutako erakundeek, hala Enplegu Sailak nola Lan-arloko Epaitegiek, ez dute salatu tuko paperik gabeko langilea ez poliziaren eta ez Atzerritarren Bulegoan; besterik gabe, erreklamazioa izapidetuko dute.

## **11. PAPERIK GABEKO LANGILEEN EGOERA ERREGULARIZATZEA**

Paperik ez badute, aukera izan dezakete lortzeko "salbuespeneko baldintzen" bidetik, baldin eta aurrerago azaldu tuko egoeraren batean badaude. Horretarako, ez dute bisa baten bila itzuli beharrik izango, eta, behin-behinean, ez zaie lehentasun nazionalaren printzipioa aplikatu tuko (horrek ekarriko luke herritar espainiarren bat balego langabezia, lehentasuna izango lukeela atzerritarren aurrean lanpostu bat eskuratzeko).

Hauek dira aurretiko betekizunak, aipatutako bide horietarako guztietarako berberak:

- Aurrekari penalik ez izatea, ez Espainiako estatuan ez jatorrizko herrialdean.
- Schengen eremuan sartzeko debekurik ez izatea (debekuak kanporatzea ekarriko luke).
- Ez itzultzeko konpromisoari loturiko epe barruan ez egotea (baldin eta beren jatorrizko herrialdera beren borondatez itzultzeko programaren onura jaso badute).

### **A) GIZARTE-ERROTZEA:**

HIRU URTE ESPAINIAKO ESTATUAN + 12 HILABETEKO LAN-KONTRATUA:

- Espainiako lurraldean 3 urteko egonaldia frogatzea, ahal dela administrazioek jaulkitako agirien bidez (errola, osasun historiala, ikastetxeak, etab.), izena, helbidea eta data adierazita. "Kanpoko egonaldiak" gehienez 120 egunekoak izango dira.
- Honako gutxieneko hauek beteko dituen lan-kontratu bat aurkeztea:
  - Iraupena gutxienez 12 hilabetekoa izatea.
  - Lansaria lanbide arteko gutxieneko soldataren parekoa edo handiagoa izango da, 14 ordainsaritan.
  - Langileak eta enpresak sinatutako kontratua (azken horrek behar besteko kaudimena egiaztatu behar du, PFEZ edo BEZ aitorenaren bidez).

– Kontratuaren hasiera-data baimena emateari baldintzatua.

- EAEn legez bizi diren senideak dituela egiaztatzea edo, bestela, Errotze Soziala-ren txostena aurkeztea. Txosten hori Zuzenean zerbitzuan eskatzen da EAEn (<http://www.zuzenean.euskadi.eus/s68-home/es>). Nafarroako kasuan, berriz, interesduna bizi den udalean, bertan zenbat urte daramatzen eta denbora horretan zer lan-jarduera egin dituen egiaztatuta.

### B) FAMILIA-ERROTZEA:

ESPAINIAR BATEN GURASOA EDO ONDORENGOA IZATEA:

- Jatorriz espainiarra den norbaiten seme-alaba izatea (JAIOTZA-ZIURTAGIRI LITERALAK).
- Espainiar nazionalitatea duen adingabe baten ama / aita izatea, harekin bizitzea eta haren ardura izatea (JAIOTZA-ZIURTAGIRI LITERALA + FAMILIA ERROLDA + HITZARMEN ARAUTZAILEA).

### C) LANEKO ERROTZEA:

2 URTE ESPAINIAKO ESTATUAN + GUTXIENEZ 6 HILABETEKO LAN-HARREMANA IZAN DELA EGIAZTATZEA:

- Espainiako lurraldean 2 urte egin izana egiaztatzea (ERROLDA).
- Gutxienez 6 hilabeteko lan-harremana izan dela egiaztatzea ebazpen administratibo edo judicial bidez; horretarako, tartean salaketa bat edo Lan Ikuskapen bat izan beharra dago (SENTENTZIA EDO IKUSKAPEN-AKTA).
- **Garrantzitsua: Auzitegi Gorenaren 1184/2021 Epaiak garrantzi handiko beritasun bat gehitzen dio salbuespenezko laneko errotzearen bidez bizileku-eskaera egiteko prozedurari( 124.1 RELOEX): lan harremana egiaztatzeko beste frogabide batzuk onartuko dira, hala nola aurretiko baimen baten ondoriozko lan-bizitza.**

### D) ARRAZOI HUMANITARIOAK:

Kasu hauetakoren batean egotea:

- Langileen eskubideen aurkako delituen biktima izatea (egiaztaturik), edo arrazakeriaren larrigarria aplikatu zaion delituaren biktima izatea. (EPAIA)
- Gerora sortutako gaixotasun larria izatea, jatorrizko herrialdean ez dagoen tratamendu espezializatua behar duena, eta tratamendua eten eginez gero, osasuna edo bizia arriskuan jar dezakeena. (TXOSTEN KLINIKOA + BERARIAZKO TXOSTEN SOZIALA)
- Jatorrizko herrialdera itzultzeak segurtasuna arrisku larrian jartzea eragin balezake.

### E) NAZIOARTEKO BABESA:

Kasu hauetakoren batean egotea:

- Barne Ministerioak - Asilo eta Babes Batzordeak emandako baimena.

- Pertsona "desplazatutzat" joa izatea, hau da, aldi baterako babesa behar duena, pertsona desplazatuen kopuru handia iritsi bada.
- Asilo Legean eta haren arauen garapenean aurreikusitakoa.

## F) AGINTARI PUBLIKOekin ELKARLANA:

Kasu hauetakoren batean egotea:

- Agintari publikoekin elkarlanean aritzea, segurtasun nazionalako edo interes publiko arrazoiak direla medio.
- Sare antolatuen aurkako elkarlana.
  - Poliziaz bestelako administrazio-agintariei laguntza ematea.
  - Administrazio-agintari polizialei, fiskalei edo judizialei laguntza ematea.

Nolanahi ere, hori frogatzen duen TXOSTENA beharko da, agintari eskudunak sinatua.

## G) GENERO-INDARKERIA:

Bi fasetan banatuta dago:

1. Behin-behineko egoitza eta lana emakumearentzat eta harekin dauden seme-alaba adingabeentzat, BABES AGINDUA edo FISKALIAREN TXOSTENA aurkeztuta. Berritzen joango da, epaiketa egin bitartean.
2. Bost urteko egoitza behin betikoa eta lana emakumearentzat eta harekin dauden seme-alaba adingabeentzat, EPAIAK KONDENA ezartzen duenean.

Absoluzio-epaia bada, emakumea eta seme-alabak egoera irregularrean geldituko dira, eta zehapen-prozedura ireki ahalko da, baina praktikan ez da halakorik egiten ari.

## 12. OINARRIZKO ORIENTABIDE BATERAKO GALDERAK ETA ERANTZUNAK, ATZERRITARTASUN IKUSPEGIA AINTZAT HARTUTA "ETXEKO ENPLEGUA" (Atzerritartasun Gidaren osagarria)

### PLANTEATUTAKO EGOERA: EZ DUT PAPERIK ETA LAN EGITEN DUDAN ETXEAN KONTRATUA EGIN NAHI DIDATE. NOLA LOR DEZAKET EGOITZA-BAIMENA ETA LAN-BAIMENA?

- *Baduzu zurekin bizi den eta EBko nazionalitatea duen bikoterik / seme-alaba adingaberik?*
  - **EZ.** Hurrengo galdera.
  - **BAI.** Aztertu ea erregularizazioa lor daitekeen *Europar Batasuneko araubidearen bidez* edo *Familia-errotzearen bidez*. Horretarako, beharrezkoa izango da egoitza-baimena eta lan-baimena, kontratu-eskaintzarik aurkeztu behar izan gabe.

Senidetasuna eta bizikidetzat egiaztatu beharko dira gutxienez.

Espainiar nazionalitateko adingabe bat bere kargura duen amaren kasuan, Familia-errotzearen bidez 5 urterako egoitza-baimena eta lan-baimena eskuratu ahal izango da.

Bikotekideak EBko herrialderen bateko nazionalitatea badu, harekin bizi bada, eta baliabide ekonomikoak baditu edo lanean ari bada (besteren kontura edo bere kontura), Europar Batasuneko araubidearen bidez EBko herritarraren senitartekoaren txartela eskuratu ahal izango du langileak. Txartelak 5 urteko iraupena izango du, aukera emango dio lane-rako, baina betiere baldintza bat izango da: txartela emateko arrazoiak indarrean irautea.

- **Zenbat denbora daramazu Espainiako lurraldean? Egiaztagarria, errolda bidez.**

- **Bi urte baino gutxiago.** Hurrengo galdera.

- **Bi eta hiru urte artean.** Kasu horretan: Laneko gehiegikeria/esplotazio-egoerarik jasan al duzu gutxienez 6 hilabetean? Aztertu ea baimenak Laneko Errotzearen bidez lor daitezkeen (horretarako, enplegatzaileari demanda aurkeztu beharko zaio, eta lan-harremana izan dela egiaztatu beharko da, Lan Ikuskaritzaren aktaren bidez edo EBAZPEN JUDIZIAL baten bidez; horrez gain, Espainiako lurraldean 2 urteko egonaldia frogatu beharko da. Bestela, hurrengo galdera.

- **Hiru urte baino gehiago.** Baduzu aukerarik gutxienez URTEBETE iraungo duen kontratu bat sinatzeko, lanbide arteko gutxieneko soldata bermatzeko? Edo, bestela, agian kontratu bat baino gehiago izanez gero, hainbat etxetan, guztiak ere gutxienez URTEBETEKO iraupenarekin, denak batuta lanbide arteko gutxieneko soldata berma dezakezu? Aztertu Gizarte-errotzea.

Espainiako lurraldean gutxienez 3 urtez jarraian bizi izana egiaztatu behar da, eta bi aldeek sinatutako lan-kontratua eduki behar da, gutxienez HAMABI HILABETEKO iraupenekoa, eta lanaldi osorako gutxieneko soldata bermatuko duena. Orobat, Atzerritarren Bulegoak baimena ematearen baldintzapean egongo da kontratu hori zer egunetan hasiko den.

- **Genero-indarkeriazko erasorik jasan duzu? Gerora sortutako gaixotasun larriren bat baduzu?**

- Egoera hori egiaztatuko duten agiriak edo frogak behar dira: Genero-indarkeria kasuetan, Genero-indarkeriaren biktima-zedula, babes-agindua edo sententzia. Gerora sortutako gaixotasunen kasuan: txosten klinikoak, herrialdean zer egoeratan zegoen frogatzen duten txostenak, txosten sozialak, etab. Genero-indarkeriaren biktima egiaztatua bada, emakumeak urtebeterako egoitza-baimena eta lan-baimena eskuratuko ditu, eta baimen horiek urtero luzatuko dira, epaiketa egin arte. Epaiketa eginda, eta kondena-epaia bada, egoitza-baimena eta lan-baimena 5 urterako izango dira beretzat eta berarekin bizi diren adin txikiko ondorengozat.

- Gerora sortutako gaixotasunen kasuan, egoitza-baimena lor daiteke. Lan-baimena lortzeko, berriz, ezinbestean kontratu bat hitzartzeko aukera behar du langileak.

## **PLANTEATUTAKO EGOERA: NAZIOARTEKO BABES-ESKAERAREN ORDEZKAGIRIA DAUKAT (ORRI ZURIA ARGAZKIAREKIN), ETA LANA AURKITU DUT ETXE BATEAN. LAN EGIN DEZAKET?**

Kasu hauetan soilik: nazioarteko babes-eskaeraren izapidetzea onartu zenetik gutxienez SEI HILABETE igaro badira, nahiz eta oraindik txartel gorria ez eskuratu. Eskaeraren

izapidetzea onartu zenetik sei hilabete igaro ondoren, lan egiteko baimena izango duzu. Zuzenean alta eman ahal izango zaizu.

**PLANTEATUTAKO EGOERA: ATZERRITARREN BULEGOTIK ALDEKO EBAZPENA IRITSI ZAIT, GIZRTE-ERROTZEA ONARTUZ, ETA HILABETEKO EPEA EMAN DIDATE ALTA IZAPIDETZEKO. NIRE ENPLEGATZAILEAK EZ DIT ALTA EMANGO GIZARTE SEGURANTZAN. ZER EGIN DEZAKET?**

Baimena emateko arrazoia izan den lan-eskaintza bertan behera geratu bada, beste eskabide bat izapidetzen hasi beharko duzu, eskaintza berri batekin. Hutsetik hasi beharko duzula esan nahi du horrek, eta berriro eskuratu beharko duzula beharrezko dokumentazio guztia. Horrek ez du esan nahi lan-eskubideak erreklamatzeko ekinbideak abiatu ezin dituzunik, bideragarri jotzen badira, baldin eta lan-harreman bat izan bada altarik eman gabe.

**PLANTEATUTAKO EGOERA: ZAINDU BEHAR NUEN PERTSONA HIL EGIN DA; HAIN ZUZEN, GIZARTE-ERROTZEA ESKATZEKO PAPERAK HAREN IZENA ADIERAZITA IZAPIDETU NITUEN. ZER EGINGO DUT ORAIN?**

Eskabidearen gaineko ebazpenik ez bada eman, beste kontratu bat aurkeztu eta erregistratu ahal izango duzu, gutxieneko baldintzak betez (gutxienez urtebeteko iraupeneko kontratua, lanbide arteko gutxieneko soldata bermatuko duena, hasierako data baimena onartzearen baldintzapean), eta justifikatu beharko duzu aurreko kontratua jada ez dela bideragarria, edozein dela ere arrazoia.

**PLANTEATUTAKO EGOERA: KONTRATU JAKIN BATEKIN ONARTU ZIDATEN GIZARTE-ERROTZEA, BAINA ORAIN LANTOKIZ ALDATU NAHI DUT. BADUT HORRETARAKO AUKERARIK?**

Bai, betiere ez bazoaz zure borondatez (gutxienez sei hilabete igaro badira), eta urte-beteren buruan baimena berritzeko betekizunak betetzen badituzu.

KONTUZ "borondatezko bajekin" Etxeko Enpleguaren sektorean.

**PLANTEATUTAKO EGOERA: NIRE ADINGABEKO SEME-ALABAK EDO BIKOTEA BERRELKARTU DITZAKET ETXE-BARNEKO LANGILE GISA BALDIN BANAGO LANEAN?**

Bai. Familia berrelkartzea eskatzeko baldintzak betetzeaz gain, enplegatzailleak onetsi egin beharko du berrelkartzea, eta, orobat, egokitu egin beharko da Etxebizitza Egokiaren Txostena, etxean dauden gelen eta bizi behar duten pertsona kopuruaren arabera.

**PLANTEATUTAKO EGOERA: NIRE EGOITZA-TXARTELA IRAUNGITZEAR DA, ETA EZIN DUT BERRITZERA JOAN JENDAURREKO ORDUTEGIAN. NOLA EGIN DEZAKET?**

Berritzeko eskaera iraugitze-data baino 60 egun lehenagotik 90 egun geroagora arte izapidetu daiteke. Komeni da aurrez egitea, era horretara txartelaren indarraldia luzatzen delako ebazpena heldu arte. Berritzeko eskaera, administrazio-erregistro bidez egin daiteke, hitzordurik gabe, posta bidez, posta-zerbitzuaren arretarako ordutegi zabalean. Komeni da dokumentazioa posta ziurtatuz bidaltzea, eta sarrera-zigilua eskatzea gure esku geratzen den kopian. Ez baldin badakigu nola prestatu tasak, etxera bidaliko dizkigute.

Modu telematikoan ere berritu daiteke. Horretarako, ziurtagiri digital baten titular izan behar da (cl@ve, FNMT). Beste aukera bat da ziurtagiri hori duen ordezkari baten bidez egitea.

### **PLANTEATUTAKO EGOERA: NIRE EGOERA ERREGULARIZATZEN HASI NAHI DUT, ETA MODU TELEMATIKOAN EGITEA GUSTATUKO LITZAIDAKE. POSIBLE DA?**

Ziurtagiri digital bat baldin baduzu soilik: cl@ve, FNMT...

Alabaina, egoera irregularrean dauden pertsonen ez zaizkie egiten ziurtagiri digitalak.

Hasierako eskabidea bide telematikoz aurkezteko Atzerritarren Bulegoan, erregistratutako profesional batek egin beharko du. Profesional horrek kolektibo hauetako kide izan beharko du, horretara gaituko duen hitzarmenarekin: Abokatua, Administrazio-kudeatzailea edo Gizarte-graduatuak.

Eusko Jaurlaritzari txosten bat eskatzeko, ziurtagiri digitala duen edonork egin dezake zure izenean, betiere behar den moduan baimentzen baduzu.

## **13. INTERNETEKO BALIABIDE PRAKTIKOAK**

- **ATZERRITARRENTZAKO INFORMAZIO ORRIAK – Migrazioetako Estatu Idazkaritza:**
  - Kasu bakoitzean bete eta egin beharreko baldintzak, dokumentazioa eta izapideak jasotzen dituzte.
- **AURRETIKO HITZORDUA ATZERRITARREN BULEGOAN ETA POLIZIA NAZIONALEAN:**
  - Atzerritarren Bulegoan, hasierako eskabideak aurkezteko.
  - Polizia Komisarian, Atzerritarren Nortasun Txartela (ANT edo TIE) ateratzeko.
- **ERREGISTROKO AURRETIKO HITZORDUA:**
  - Atzerritarren Bulegora bideratutako dokumentazioa bidaltzeko, errekerimenduen erantzuteko, etab.
  - Cl@ve eskatzeko (estatuko administrazioaren aurrean balio duen ziurtagiri digitala).
- **EUSKO JAURLARITZAREN TXOSTENAK:**
  - Eskabide telematikoak BakQ ziurtagiriarekin.
  - Eskabideen fitxategiak paperan deskargatzea, Zuzenean zerbitzuan aurretiko hitzorduarekin aurkezteko.
- **NAFARROA:**
  - Gizarte-errotzeari eta Etxebizitza Egokiari buruzko Txostenak Udal bakoitzean, erroldatutako udalerraren arabera.
  - Gizarteratze Ahaleginaren Txostena.

## 14. DOAKO ORIENTABIDEA ATZERRITARTASUN GAIETAN

- Eusko Jaurlaritza - AHOLKU SAREA (Atzerritartasunaren alorreko Euskal Zerbitzu Juridikoa).
  - Erakunde bazkidetuak.
  - Telefono eta posta elektronikoko bidezko kontsultak.
  - Erabiltzaileentzako: 900 840 890 eta asesoria@euskadi.eus.
  - Atzerritarrei arreta ematen dieten profesionalentzako: 944 001 809 eta juridika@biltzen.eus.
- **BARAKALDOko Udala:**
    - A través de sus Servicios Sociales de Base o el Servicio Municipal de Inmigración.
  - **NAFARROAko Gobernua:**
    - Oinarriko Gizarte Zerbitzuen bidez edo Immigrazioko Udal Zerbitzuaren bidez.
    - Oinarriko Gizarte Zerbitzuak.

